

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2008-11-18

Gatazkaren min barrukoena

'Haginetako mina' liburua argitaratu du Txalapartak, 18 idazleren ipuinak apailaturik

OIHANA LETE

Donostia

Hemezortzi idazlek egindako hemezortzi ipuin; hori dago *Haginetako mina* liburuan. Txalapartak argitaratu du liburua, eta hauek dira idazleak: Anjel Lertxundi, Mikel Albisu, Edorta Jimenez, Inazio Mujika Iraola, Patxi Zubizarreta, Pablo Sastre, Luis Fernandez, Jose Luis Otamendi, Xabier Montoia, Jokin Muñoz, Lander Garro, Eider Rodriguez, Xabier Mendiguren, Iban Zaldúa, Jon Alonso, Harkaitz Cano, Karmele Jaio eta Joseba Sarrionandia.

«Gure gatazka santu edo satanikoa geldialdi bat da liburu hau, politikaren inguruan hitz egiteko eta elkar ulertzeko», esan zuen Eider Rodriguez idazleak. Euskal gatazkaren inguruko ipuinen antologia den arren, ez dira aipatzen aberria, deserria eta halako kontzeptuak; «politikaren atzealdean dagoen bizitza horretaz hitz egiten da, zerbait tragikoagoa da». Hala ere, tragikotasunetik urruntzen diren ipuinak ere badira.

«Politikoa da, baina ez da politikoa», zioen Rodriguezek. «Politikoa balitz, boto kopuruez, masaren ideologien garapenez, atentatuen eraginaz eta abarrez hitz egingo litzateke bertan, baina liburu hau gertakarien munitetik abiatutako zerbait da: negoziazio mahai batean dauden kideen urduritasuna, euren familien egoera eta abar dira hizpide», argitu du Rodriguezek.

Euskal Herrian aspalditik piztua dagoen gatazkari beste ikuspuntu bat ematen ahalegindu dira ipuinez osatutako liburu honetan. «Gatazka xake partida bat balitz bezala ikusten dugu guk; liburu honetan, partida horretako pieza horien usteak, sentimenduak eta nahiak zeintzuk diren erakusten dugu», esan zuen Rodriguezek.

Mikel Soto Txalaparta argitaletzeko editorea aritu da ipuinak hautatzeko lanetan, eta liburuaren hitzaurrea ere berak idatzi du. «Izenburua hautatzea zaila izan da». Jose Luis Otamendiren *Haginak* lanetik hartutakoa da. «Minetara doa gure gogoia, nahi baino maizago. Askotan, besteengan ikusten dugulako gure gatazka mina, baina batez ere, guk geuk sentitzen dugulako gure gatazka horren minik barrukoena. Sarri itzultzen dugu mingainaren begirada konturatzeko gure hagina ez dagoela bere lekuan eta, besamotzaren besoa bezala, dena dela eza, dena gabezia eta dena mingarria», esan zuen Sotok. «Haginetako minarekin nagoela esaten badut, adibidez, badakizue min dudala, eta elkartasuna erakutsiko didazue, baina min hori nik bakarrik sentituko dut». Anekdotak horrekin laburbiltzen da liburu honen edukia.

Antologia literario bat egin nahi izan dute. Beraz, «ipuin ona edo txarra den hartu da kontuan hautaketa egiteko orduan». Azken 30 urteetako gatazka hartu da kontuan, eta ipuinek errealismoari lotutakoak izan behar zuten. «Gatazka fantasiazko mundu batean jorratzen zutenak bazeuden, baina horiek baztertu egin nituen», adierazi zuen Sotok.

Oso aukera zabala

Haginetako mina liburuan argitaratu behar zituzten ipuinak hautatu ondoren, hiru aukera eman zizkien idazleei apailatzaileak: bere horretan kaleratzea, idazleek eurek eguneratzea edota Sotok berak eta laguntzaileek aldatzea; «guztiak ados jarri ziren erantzuna emateko orduan: eurek eguneratzea erabaki zuten».

Hauek dira liburuko ipuinak: Anjel Lertxundiren *Hausturak*, Mikel Albisu Iriarteren *Odolaren Usaina*, Edorta Jimenezen *Atoiontzia*, Inazio Mujika Iraolaren *Panpina Errusiarra*, Patxi Zubizarretaren *Bihar ez diot amari huts egingo*, Pablo Sastren *Leihoa Zabalk*, Luis Fernandez *Kontaktua*, Jose Luis Otamendiren *Hagina*, Xabier Montoiaren *Irapuato*, Makurkeria nonahi, Jokin Muñozen *Isiluneak*, Lander Garroren *Hainbeste herri*, Eider Rodriguezen *Politika albisteak*, Xabier Mendiguren Elizegiren *Trip*, Iban Zalduaren *Udako Bidaia*, Jon Alonsoren *Euskara izan*, Harkaitz Canoren *Hipotesiak Gordinkeriaz*, Karmele Jaioren *Gogoratzen* eta Joseba Sarrionandiaren *Xakea*.

Albisterik...

[IRAKURRIENAK](#)
[Bozkatuenak](#)
[Bidalienak](#)

- 1 Euriari elurrak hartu dio lekukoa
- 2 Joseba Permach epailearen aurrera eraman dute, EHAKren auziagatik
- 3 UPNk irabaziko litzuke hauteskundeak, gaur baino bost diputatu gutxiago lortuta
- 4 Autodeterminazio erreferenduma egingo dute gaur Groenlandian
- 5 Agortu dira Irujo-Olaizola II.a finaleko sarrerak

Laguntzaileak: